



Arartekoaren 2015R-759-15 Ebazpena, 2015eko irailaren 8koa. Horren bidez, Haurreskolak Partzuergoari gomendatu zaio hartutako erabakia berrikus dezan eta, hezkuntzako langileen merezimenduen baremazioa/birbaremazioa egiteko prozesuaren barruan, bere eskaera osatzerakoan (...)ek egin zuen akatsa zuzendu dezan.

Aurrekariak

1. Erakunde honetan (...)ek aurkeztu duen kexa-idazkia jaso da. Interesdunak Haurreskolak Partzuergoaren zerbitzura lan egiten du.

Langileak 2014ko azaroaren 24an Zuzendaritza Batzordearen Erabakiaren bitartez onetsitako hezkuntzako langileen merezimenduen birbaremazio-deialdian parte hartu zuen, lanpostu hutsak eta ordezkapenak behin-behinean betetzeko ordezkoen zerrenda osatzeko helburuarekin.

Erakunde honen esku-hartzea eskatzeko arrazoia da partzuergo horrek ukatu egin ziola lanpostu hutsak behin-behinean bete eta ordezkapenak egiteko lurralde-eremua esleitzerakoan egindako akatsa zuzentzeko aukera. Azaldutakoaren arabera, okertu egin zen eta Bizkaia aukeratu zuen baina, benetan, bere nahia zerbitzuak Gipuzkoan eskaintzea zen.

Interesdunaren azalpenei jarraiki, ematen du partzuergo horrek ukapena justifikatzen duela erabakiaren 3.5. atalean xedatutakoa aipatuz: *Baremazio/birbaremazioa egiteko eskatzen den dokumentazioan forma-akatsak daudela, edo merituen balorazioa egiteko aurkeztu diren dokumentuetan akatsak daudela, interesdunak akatsa zuzentzeko edo eta aurkeztu beharreko agiriak aurkezteko aukera izango du. Akatsen zuzenketa egiteko epea hautagaien behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamazio epea izango da.*

2. Kexa izapidetzeko onartu ostean, erakunde honek partzuergoaren gerentziaren laguntza eskatu zuen eta jarraian bildu ditugun balorazioak jasotzen zituen idazkia helarazi zion:

“...Planteamendu hau modu batean ulertuko genuke interesdunaren nahia bere eskarian esleitutako datuak aldatzea izango balitz, Akordio honen 3.4 atalean betoa espreski jartzen den bezala:

“Zerrendetako hautagai guztiek (bai barematutako zein ez barematutako hautagaiak), Haurreskolak Partzuergoan lanaldi- eta lurralde-aukerei dagokienez gaur egun dauden datuak aldatzeko eskatu ahal izango dute, eskabideak aurkezteko emandako epearen barruan. Epe hori igaro ondoren, prozesutik ateratzen den





barematutako zerrendako ideek ezingo dituzte datu horiek berriz aldatu, harik eta hurrengo birbaremazioa egin arte.”

Dena den, interesdunak akats bat dela errepikatu du, bere ustez, orain arte Gipuzkoan egin duelako bere lana irakasle moduan.

Honi dagokionez, gaineratu du bere familia ardurek (hiru seme-alaba ditu eta bere gurasoak ere berak zaintzen ditu) lanagatik beste herrialde batera joateak suposatzen dizkion zailtasunak argi uzten ditu.

Gure ustez, arrazoi hauek egiazki gertatutakoa akats bat izan dela pentsatzera eramaten gaituzte eta hori ez litzatekeela zuzentzeko arazo bat izan behar, horri dagokionez zehazki aurreikusitako aukera ikusita, behin behineko zerrendaren aurkako erreklamazio epearen barruan, interesdunak egin duen bezala.”

3. Laguntza eskaerari erantzunez, partzuergoko gerentziak aditzera eman zuen Zuzendaritza Batzordearen aurreikuspenen arabera, laster kexagileak aurkeztu zuen gora jotzeko errekurtsua ebatzi behar zela eta ebazpen horren edukiaren berri emateko konpromisoa hartu zuen.

Konpromisoa betez, azkenean, gerentziak Zuzendaritza Batzordearen 2015eko ekainaren 15eko ebazpenaren kopia bat helarazi zion erakunde honi, aurkeztutako errekurtsua gaitzesten duena hain zuzen ere.

Laburbilduz, esan dezakegu ebazpen horretan argudio bikoitza erabiltzen zela errekurtsuaren gaitzespena justifikatzeko.

Alde batetik, dirudienez, interesdunak berak egindako alegazio jakin batzuen aurrean eta deialdiari buruzko erabakiko 3. artikulua 4. eta 5. ataletan xedatutakoaren artean kontraesanik ez dagoela ñabartu ondoren, aipatzen da, batzordearen iritziz *baremazio araudiaren 3.4. artikulua literaltasunak ez du zalantzarik uzten lurralde eta lanaldiari buruzko aukerak aldatzeko epearen izaera preklusiboaren inguruan.*

Bestalde, argudiatzen zen errekurtsogilearen kasua ez dela herri-administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen (HAAJAPPEL) 70. artikuluan jasotako kasuetako bat eta hori ezinbestekoa dela administrazio prozedura erregulatzen duen araudi horren 71. artikuluan xedatutako eskaerak zuzentzeko izapidea beharrezkotzat jotzeko.

Gogoetak

1. Hala, herri-administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak zenbait kasu barne hartzen ditu eta, kasu horietan, administrazioak berak aurkeztutako eskaera zuzentzeko





eginbearra dauka 70. artikuluan xedatutako baldintzak betetzen ez baditu. Hau da:

- a) Interesdunaren izen-abizenak eta, ordezkaria badu, bere ordezkariarenak, baita jakinarazpenak jasotzeko aukeratutako bidea eta lekua ere*
- b) Egitateak, arrazoiak eta eskaria, argi eta garbiadierazia.*
- c) Lekua eta eguna*
- d) Eskabide-egilearen izenpea edo benetan bere borondatea dela erakusteko edozein eratako egiaztapena*

Hortaz, ondorioztatu dugu partzuergoko Zuzendaritza Batzordeak defendatzen duela esku artean dugun kasuan: *“ez dela horrelako inguruabarririk gertatu, beraz, errekurtsogilearen eskaerak ez zeukan inolako akatsik, zuzentzeari dagokionez”.*

Dena den, hori egia bada ere, Zuzendaritza Batzordeak onetsi zuen deialdiak berak (lanpostu hutsak behin-behinean betetzeko eta ordezkapenak egiteko ordezkoen zerrenda osatzeko), 3.5. artikuluan, eskaeran egon daitezkeen akatsak zuzentzeko epea ezarri duela eta salbuespen bakarra aipatzen du: ez da dokumentazio berririk onartuko, eskaera egiteko epean alegatu ez bada behintzat.

2. Errekurtsoa ebazterakoan partzuergoko Zuzendaritza Batzordeak argudiatu du interesdunaren eskaera onartzeak eta kontrako ebazpena emateak deialdiaren 3.4. manua *“modu irekian haustea”* dakarrela; izan ere, batzordearen arabera, ez dago zalantzarik haren irismenaren inguruan.

Ebazpen honen aurrekarietan islatu den moduan, manu horrek zera ezarri du:

“Zerrendetako hautagai guztiek (bai barematutako zein ez barematutako hautagaiek), Haurreskolak Partzuergoan lanaldi- eta lurralde-aukerei dagokienez gaur egun dauden datuak aldatzeko eskatu ahal izango dute, eskabideak aurkezteko emandako epearen barruan. Epe hori igaro ondoren, prozesutik ateratzen den barematutako zerrendako ideek ezingo dituzte datu horiek berriz aldatu, harik eta hurrengo birbaremazioa egin arte.”

Gure hasierako esku-hartzean egin genuen moduan, azpimarratu behar dugu ulertuko genukeela manu hori (3.4. artikulua) aintzat hartzeko beharra interesdunaren nahia haxe izango balitz: lurraldeari lotutako aukerak aldatzea, xede horrekin ezarritako epea behin amaituta.

Hala eta guztiz ere, interesdunaren asmoa oso bestelakoa da. Izan ere, bere nahi bakarra eskaeran zerbitzuak eskaintzeari dagokionez lurraldea hautatzerakoan egin zuen akatsa zuzentzea da eta, gure ustez, frogatu egin du bere kexan, hezitzaile bezala egin dituen lan guztiak Gipuzkoan izan direla azaldu ostean, bere





mugikortasun aukerak galarazi edo zaildu egiten dituzten familia karga larriei erreferentzia egiten dienean.

Halaber, erakunde honen iritziz, interesdunaren eskaera onartzeak ez dakar derrigorrez deialdiaren 3.4. artikuluan xedatutakoa *“modu irekian haustea”*. Guk uste dugu, kontrakoa gertatzen dela, hau da, bi manuak modu integratuan aplikatu daitezkeela, interesdunak eskaera osatzerakoan egin zituen akatsak zuzentzeko aukera emanez (lurraldeari lotutako aukera bada ere), epez kanpoko aldaketa bat ez dela ondorioztatuz (izan ere, azken hori berariaz debekatuta dago) eta nahi gabe egindako akats bat zuzentzean datzala ulertuz. Gainera, kexagilearen kasuan eta mahai gainean jarri diren inguruabar pertsonalak aintzat hartuta, azken hori nahikoa frogatua geratu da.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin diogu Haurreskolak Partzuergoari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoarekin bat eginez:

GOMENDIOA

Hartutako erabakia berrikus dezala eta (...)ek hezkuntzako langileen merezimenduen baremazio/birbaremazio prozesuaren baitan haren eskaera osatzerakoan egin zuen akatsa zuzendu dezala.

